



EBAZPENA, 2019ko azaroaren 14koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatuta dauden eta ezohiko epean eskaera gauzatu duten ikasleen eskola-garraiorako banakako diru-laguntza deialdia.

2019ko ekainaren 12ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez eskola-garraiorako banakako diru-laguntzetarako deialdia egin zen desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili 2019-2020 ikasturtean.

Eskaerak aurkezteko epe orokorra amaiturik eta behin aztertu ondoren 2019ko azaroaren 7ko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren Ebazpenaren bitartez eskatutako laguntzak ematea edo ukatzea ebatzi zen.

Gerora, bertan zehazten diren inguruabarrak gertatzen direnean eskaerak aurkezteko eta emandako zenbatekoa zenbatzeko ezohiko epe bat irekitzen duen deialdiaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskaera berriak aurkeztu dira.

Eskaerak guztiak Aginduan xedatutakoaren arabera aztertuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezohiko epean eskaera gauzatu duten eta Hezkuntzako Sailburuaren 2019ko ekainaren 12ko Aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei garraiorako banakako diru-laguntzak ematea. Eranskinean ikastetxe bakoitzeko eskatzaile guztiei emandako zenbatekoak adierazita daude.

Bigarrena.- Honako Ebazpena interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Ikasle eskatzaileak matrikulatuta dauden ikastetxeetako zuzendariari bidalitako komunikazioaren bidez, diru-laguntzen ebazpenaren berri emango da eta eskatzaile bakoitzari emandako zenbatekoa zehaztuko da.

Hirugarrena.- Hezkuntza Berritzeko Zuzendariaren 2019ko azaroaren 7ko Ebazpenaren Eranskina aldatzea. Ebazpen horrek desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatu ziren ikasleentzako eskola-garraiorako banakako esleipenen deialdia ebatzi du. Aldaketa honen bidez, ebazpen honetan txertatu nahi dira aitorturiko laguntzen onuradunak direnei emandako zenbatekoak.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 14n

Lucía Torrealdy Berrueco,
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



ANEXO / ERANSKINA

ARABA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
010231	CEIP SAN IGNACIO HLHI	980,00 €
010117	CEE GORBEIALDE HBI	3.607,09 €

BIZKAIA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
014048	CEIP LARREA HLHI	728,48 €
014392	CEP MAESTRO ZUBELDIA LHI	1396,8 €
015307	IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA- DURANGO BHI	549,50 €
015093	IES ORTUELLA BHI	24.428,27 €

GIPUZKOA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
012495	CPEE AZCARATE ENEA HBIP (GAUTENA)	10.552,00 €
012976	CEIP TALAIA HLHI	752,50 €